



**LESAKAKO UDALA (NAVARROA)
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

**UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL
BILERA. AYUNTAMIENTO.**

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Ohikoa.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2020.06.25.

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

Tokia: Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan.

Bertaratuak:

Alkatea: Ladis Satrustegui Alzugaray jn.

Zinegotziak:

Maitane Rodriguez Etxabide and.

Iban Garro Alzuri jn.

Maider Arrieta Tapia and.

Iratxe Batiz Barzena and.

Mattin Etxabide Gartzia jn.

José Luis Echegaray Andueza jn.

Ione Fagoaga Echarte and.

Iban de Prado Echepeleku jn.

Esteban Irazoqui Irazoqui jn.

Jose Maria Portu Ochoteco jn.

Idazkaria: M. Jose Larrayoz Ariztegui and.

2015eko ekainaren 19ko Osoko Bilkuran erabakitakoarekin bat, bilkura guziaren soinu-grabaketa eginen da, geroago udalaren web orrian zintzilikatzeko.

Alkate jaunaren aginduz bilkura hasi da, eta, deialdiaren ordenari jarraituz, ondoko gai hauei buruz aritu dira:

Organo: Pleno.

Sesión: ordinaria.

Convocatoria: primera.

Día: 25.06.2020.

Hora: 19:00 horas de la tarde.

Lugar: Salón de Plenos del Ayuntamiento de la Villa de Lesaka.

Asistentes:

Alcalde: D. Ladis Satriñestegui Alzugaray.

Concejales:

Dña. Maitane Rodriguez Etxabide.

D. Iban Garro Alzuri.

Dña. Maider Arrieta Tapia.

Dña. Iratxe Batiz Barzena.

D. Mattin Etxabide Gartzia.

D. José Luis Echegaray Andueza.

Dña. Ione Fagoaga Echarte.

D. Iban de Prado Echepeleku.

D. Esteban Irazoqui Irazoqui.

D. José María Portu Ochoteco.

Secretaria: Dña. M. José Larráyoz Ariztegui.

En cumplimiento de lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento con fecha 19 de junio de 2015, se realizará una grabación de sonido de la totalidad de la sesión, con el fin de colgarla posteriormente en la página web municipal.

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, conforme a la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

1.- AZKEN BILKURARI DAGOKION

I.- APROBACIÓN DEL ACTA

AKTAREN ONESPENA.

Osoko Bilkurak, aho batez, onartu du, 2020ko maiatzaren 28ko akta.

CORRESPONDIENTE A LA ULTIMA SESION.

El Pleno aprueba, por unanimidad, el acta de la sesión celebrada el día 28 de mayo de 2020.

2.- BALORAZIO TXOSTENAREN BERRIKUSPENA:

ONESPENA.

2018ko otsailaren 13an, Lesakako balorazio-txostenaren berrikuspresa egiteko eskaintza sinatu zen Tracasa SARekin, 6.763,22 eurokoa, BEZA barne.

2020/04/01ean (erregistro-zenbakia: 2020/977), Tracasa SAk egindako balorazio-txostenari sarrera eman zen.

2020ko maiatzaren 28an egindako bileran hasiera batez onartu zen Lesakako balorazio-txostenaren berrikuspresa

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katastroei buruzko 12/2006 Foru Legearen 36.2. artikuluak hauxe dio:

“Udalerri bateko balorazio ponentziaren proiektua prestatzea udalari dagokio. Horretarako, behar adina informazio eskatzen ahalko dio Nafarroako Zerga Ogasunari, baldin eta haren eskutan badago eta lana egiteko muntakoa bada. Proiektua prestatzeko fasean, udalak batzorde mistoa eratzeko eskatzen ahalko du, testua prestatzeko prozesuan sortzen diren kontsultak hari egin ahal izateko.

Eskaera jaso ondoren, Nafarroako Zerga Ogasunak batzorde mistoa eratzeko aginduko du, Nafarroako ondasun higiezinak baloratzeko eginkizunak esleiturik dituen unitate organikoko zuzendariaren ebazpenaren bidez.

Udal bakotzerako batzorde mistoa lankidetza teknikorako organo bat da, udalaren

2.-REVISION DE LA PONENCIA DE HASIERAKO VALORACION: APROBACION INICIAL.

Con fecha 13 de febrero de 2018 se firmó la oferta con Tracasa S.A. para la elaboración de la revisión de la ponencia de valoración de Lesaka por un importe de 6.763,22 euros, IVA incluido.

Con fecha 01/04/2020, nº de registro 2020/977, se da entrada a la ponencia de valoración elaborada por Tracasa S.A.

En sesión celebrada el día 28 de mayo de 2020 se aprueba inicialmente la revisión de la ponencia de Valoración de Lesaka.

La Ley Foral 12/2006, de 21 de noviembre, del registro de la riqueza territorial y de los catastros de Navarra establece, en su artículo 36.2.:

“El Ayuntamiento correspondiente podrá instar durante la fase de elaboración del proyecto la constitución de la Comisión Mixta a efectos de efectuar a la misma, en su caso, cuantas consultas en el proceso de elaboración del texto estime convenientes.

Recibida la solicitud, la Hacienda Tributaria de Navarra acordará la constitución de la Comisión Mixta mediante resolución del Director de la unidad orgánica que tenga atribuidas las funciones de valoración de los bienes inmuebles de Navarra.

La Comisión Mixta para cada municipio es un órgano de cooperación técnica creado al objeto



LESAKAKO UDALA (NAVARROA) AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)

balorazio ponentziaren edukia finkatzeko eratzen dena. Kasuko udalaren hiru ordezkari izanen ditu, udalak berak aukeratuak, eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren beste hiru ordezkari. Horietatik bi Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak izendatuko ditu, bertako teknikarien artean, eta hirugarrena Toki Administrazioko Departamentuak aukeratuko du.

Alkateak bere alderdiko 2 zinegotzi izendatzea proposatu du: bera eta Mattin Etxabide Gartzia jauna eta Geroa Baiko zinegotzi bat.

Geroa Baiko bozeramaileak Jose Luis Echegaray Andueza jauna Batzorde Mistoko ordezkari izendatzea proposatu du.

Ikusirik Idazkariak egindako txostena horri buruz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1.) Batzorde Mistoko kide izendatzea Ladis Satrustegui Alzugaray jauna, Mattin Etxabide Gartzia jauna eta José Luis Echegaray Andueza jauna.

2.) Akordio hau Tracasa S.A.rí eta Nafarroako Gobernuko Lur-Ondasunen eta Ondarearen gainekeo Tributuen Zerbitzuari jakinaraztea.

3.) 2020KO AURREKONTUAREN ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA (2/2020 ESPEDIENTEA).

Ekainaren 22an kontu-hartzaileak eginiko txostenean, adierazten du beharrezkoa dela kreditu gehigarria bat egitea Udalaren 2020. urterako aurrekontuan (1.3231.62201 partidan).

Jasotzen du 26.000,00 €-tako hornidura

de fijar el contenido de la Ponencia de valoración Municipal, y estará formada por tres representantes del Ayuntamiento afectado, designados por éste, y tres representantes de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra, dos de los cuales serán designados por el Director Gerente de la Hacienda Tributaria entre personal técnico de la misma y el tercero será designado por el Departamento de Administración Local”.

El Alcalde propone nombrar 2 concejales de su partido: él y a D.Mattin Etxabide Gartzia y a un concejal de Geroa Bai.

La portavoz de Geroa Bai propone nombrar a D.José Luis Echegaray Andueza como representante en la Comisión Mixta.

Visto el informe elaborado por la Secretaría al respecto.

Por unanimidad, SE ACUERDA:

1.) Nombrar como miembros de la Comisión Mixta a D.Ladis Satrustegui Alzugaray, D.Mattin Etxabide Gartzia y D. José Luis Echegaray Andueza.

2.) Notificar este acuerdo a Tracasa S.A. y al Servicio de Riqueza Territorial del Gobierno de Navarra.

3.) MODIFICACIÓN DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2020 (EXPEDIENTE 2/2020): APROBACIÓN INICIAL.

En un informe emitido por el interventor con fecha 22 de junio señala la necesidad de realizar una ampliación de crédito en el Presupuesto del Ayuntamiento para el año 2020 (partida 1.3231.62201).

Contempla la dotación de 26.000,00 € a

kontusail horri. Berau, Irain eskolan obrak egiteko. Gastua Nafarroako Gobernuko diru laguntza (19.000,00 euro) eta gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin (7.000,00 euro) finantzatuko da.

Aipaturiko txostenean adierazitakoa ikusita, eta kontuan hartuta Nafarroako Toki Administrazioko Foru-Legearen 271. artikuluan ezarritakoa (lege hori Nafarroako toki-araubidea eguneratzeko 11/2004 Foru-Legeak aldatu zuen), Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:

1.) Hasiera batean onestea aurrekontua aldatzeko 2/2020 espedientea.

2.) Espediente hori jendaurrean edukitzea hamabortz egun baliodunean, aldez aitzinetik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean, herritarrek edo interesdunek aztertu ahal dezaten eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak egin ditzaten.

**4. NORDEX ENERGY SPAIN S.A.
ENPRESAK AUZOBERRI AUZOAN PARKE
EOLIKO BAT ERAKITZEKO
AURKEZTUTAKO MEMORIARI BURUZKO
IDAZKIA.**

Nafarroako Gobenuak jakinarazi dio Udal honi Nordex Energy Spain S.A. enpresak aurkeztutako memoria, Lesakan parke eolikoa jartzeko.

Horri buruz, Mattin Etxabide Gartzia jaunak irakurri ondorengo testua:

“Proiektuaren KONTRA gaude, bertzeak bertze hurrengo arrazoiengatik:

- Lesaka eta Lesakarrak kontuan hartu gabe egin da.
- Ez ditu aintzat hartu ingurumenean, ondare historikoan eta bertan bizi diren auzotarren

dicha partida. La misma se destinará para obras en el Colegio Irain. Será financiado con la subvención concedida por el Gobierno de Navarra (19.000,00 euros) y con remanente de tesorería para gastos generales (7.000,00 euros).

A la vista de lo señalado en el citado informe y teniendo en cuenta lo establecido por el artículo 271 de la Ley Foral de Administración Local de Navarra (modificada por la Ley Foral 11/2004, para la actualización del régimen local de Navarra), el Pleno acuerda por unanimidad:

1.) Aprobar inicialmente el expediente de modificación presupuestaria 2/2020.

2.) Someter el mismo a exposición pública, por periodo de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinarlo y formular las reclamaciones que estimen oportunas.

**4. ESCRITO SOBRE LA MEMORIA
PRESENTADA POR LA EMPRESA NORDEX
ENERGY SPAIN S.A. PARA LA
CONSTRUCCIÓN DE UN PARQUE EÓLICO
EN EL BARRIO AUZOBERRI.**

El Gobierno de Navarra ha comunicado a este Ayuntamiento sobre la memoria presentada por la empresa Nordex Energy Spain S.A. para la instalación de un parque eólico en Lesaka.

Al respecto D. Mattin Etxabide Gartzia lee el siguiente texto :

“Estamos en contra del proyecto por las siguientes razones:

- Se ha hecho sin contar con Lesaka y con los vecinos de Lesaka.*
- No ha tenido en cuenta las afecciones al medio ambiente, al patrimonio histórico no los*



LESAKAKO UDALA (NAVARROA) AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)

bizitzan eragiten dituen kalteak.

Hau dela eta Udal honek batzorde bat osatuko du gaia lantzeko, eta beharrezko oharrok eta helegiteak landuko ditu proiektua geldiarazteko”.

Testu hau bozkatu da eta aho batez,
ERABAKI DUTE:

- 1.) Aipatutako testua onartzea.

5. BATZORDE BEREZIA ERATZEA ETA BERTAKO KIDEAK IZENDATZEA.

Nordex Energy Spain S.A. enpredak Lesakan parke eolikoa jarzeko asmoa du.

Hori dela eta gaia lantzeko eta beharrezko oharrok eta helegiteak aztertzeko Batzorde Berezia eratu nahi da.

Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretua jarraituz.

Ikusirik Idazkariak egindako txostena horri buruz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1.) Aipatutako Batzor Berezia eratzea onartzea.

2.) Horren kideak hauek izatea: Ladis Satrustegui Alzugaray jauna, Maitane Rodriguez Etxabide andrea, Mattin Etxabide Gartzia jauna, José Luis Echegaray Andueza jauna, Ione Fagoaga Echarte andrea eta Esteban Irazoqui Irazoqui jauna.

6.-2020KO SAN FERMIN JAIEI BURUZKO IDAZKIA.

Iban Garro Alzuri jaunak irakurri du

daños que produce a la vida de los vecinos que lo habitan.

Por este motivo este Ayuntamiento formará una comisión para tratar el tema y elaborará las observaciones y recursos necesarios para paralizar el proyecto”.

Se somete a votación el siguiente texto, que por unanimidad acuerda:

- 1.) Aprobación del citado texto.

5. CONSTITUCIÓN DE COMISIÓN ESPECIAL Y DESIGNACIÓN DE SUS MIEMBROS.

La empresa Nordex Energy Spain S.A. tiene previsto habilitar un parque eólico en Lesaka.

Por ello, se propone crear una Comisión Especial para tratar el tema y analizar las observaciones y recursos necesarios.

De conformidad al Real Decreto 2568/1986 por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

Visto el informe elaborado por la Secretaría al respecto.

Por unanimidad, SE ACUERDA:

1.) Aprobar la constitución de la citada Comisión Especial.

2.) Nombrar como integrantes de la misma a D. Ladis Satrustegui Alzugaray, Dña. Maitane Rodriguez Etxabide, D. Mattin Etxabide Gartzia, D. José Luis Echegaray Andueza, Dña. Ione Fagoaga Echarte y D. Esteban Irazoqui Irazoqui.

6. ESCRITO SOBRE LAS FIESTAS DE SAN FERMÍN 2020.

D. Iban Garro Alzuri lee el siguiente texto:

ondorengo testua:

"Hurbiltzen ari dira hainbertze maite ditugun datak, baina aurren COVID19-ak eragindako osasun krisiak ohitura guziak aldatzera behartu gaitu. Ondorioz, maiatzaren 21ko eskutitzaren bidez aurtengo herriko bestak bertan behera uztea erabaki zuen Udal honek.

Gizarte mailan esfortzu handia egin da, aunitz galdu dugu eta aunitz ikasi dugu azken hilabeteetan eta herritar guztiak esfortzu handiak egin ditugu.

Nahiz eta egoerak nabarmen hobera egin, arriskua oraindik hor dagoela diote osasun adituek. Horretarako, bestetan hain ohikoak diren jende pilaketak ekiditea delarik eginbehar garrantzitsuenetako bat, eta hau guzion ardura da.

Ildo honetan, hurrengo adierazpena egitea erabaki dugu udalbatza osoak aho batez:

- Lesakako herriarrei segurtasunarekiko dugun konpromezuarekin jarraitzen dei egiten dizuegu, osasunean adituak direnen aholkuak jarraituz ardura osoz.
- Ekitaldi berezirik ez antolatzea eskatzen dugu bizi dugun osasun egoeragatik. Hauek jende pilaketa ekarri dezakete, birusaren berpiztearen lagungarri izan daitezkeenak. Horrelako jarrerak ez ditugu inolaz ere babestuko.
- Herriko ostalariek ostattuak goizeko ordu bitan ixteko erabakia babesten dugu erabat. Jakin, kontrakoak sektore honi ondorio hagitz larria eragin diezaiokela.
- Uztailaren 6a, 8a, 9a eta 10a Udalaren jardueran lan egunak izango dira.

"Se acercan fechas tan queridas, pero este año la crisis sanitaria provocada por el COVID19 nos ha obligado a cambiar todas las costumbres. En consecuencia, mediante la carta del día 21 de mayo, este Ayuntamiento decidió suspender las fiestas patronales de este año.

A nivel social se ha hecho un gran esfuerzo, hemos perdido mucho y hemos aprendido mucho en los últimos meses y todos los ciudadanos hemos hecho un gran esfuerzo.

Aunque la situación ha mejorado notablemente, los expertos sanitarios aseguran que el riesgo aún está ahí. Para ello, una de las tareas más importantes es evitar las aglomeraciones de gente tan frecuentes en fiestas, y esto es responsabilidad de todos.

En este sentido, se acuerda por unanimidad de toda la Corporación realizar la siguiente declaración:

- Animamos a la ciudadanía de Lesaka a seguir con nuestro compromiso con la seguridad, siguiendo los consejos de los especialistas en salud con total responsabilidad.*
- Pedimos que no se organicen eventos especiales por la situación sanitaria que vivimos. Estos pueden traer la aglomeración de gente, que pueden ayudar a la resurrección del virus. Este tipo de actitudes no las vamos a apoyar en absoluto.*
- Apoyamos totalmente la decisión de los hosteleros del pueblo de cerrar los alojamientos a dos horas de la mañana. Sabed que lo contrario puede tener un efecto gravísimo para este sector.*
- Los días 6, 8, 9 y 10 de julio serán laborables en la actividad municipal.*



LESAKAKO UDALA (NAFARROA) AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)

- Ez dugu herri eremuan kanpinik jartzen utziko.

Aurten ezin izanen ditugu San Ferminetara urtero bezala bazter guzietatik guregana etortzen direnak hartu, aunitz estimatzen dugu euren etorrera. Baino, erran bezala, gauzak desberdin biziak tokatzen zaigu aurten, eta eskatzen diegu aurten Lesakara San Ferminetan ez etortzea. Heldu den urtean berriro elkar ikusiko dugu”

Ondoren, Alkateak irakurri du Lesakako ostatuak aurkeztutako idatzia:

“2020KO SANFERMINAK.
OSTATUEN EKARPENA BIZI DUGUN
EGOERAN.

Azken hilabeetan COVID19a dela eta bizi izan dugun, bizi dugun, osasun krisiak erabat baldintzatu digu bizitza, pertsonala nahiz gure sektorekoak. Asteak pasa ditugu etxeen, gure tabernak itxita, lana ezin eginik. Erietxeak gainezka ikusi ditugu, ehundaka hildako, milaka kutsatu... Aspaldiko osasun krisi haundiak izan da, krisi sozial ekonomiko politikora pasa delarik denbora guttian.

Herriak antolatzeko gaitasuna izan du, prebentzio neurriak martxan jarriz, elkar zainduz. Erantzukizunez jokatuz genuen lehenengo egunetik, guk ostatuak itxi genituen, etxeen gelditu ginen.... bertze herritar guztiak bezala.

Pixkanaka egoera hobera doala dirudi, “normaltasunera” bueltatzen hasiak gara, pixkanaka, poliki-poliki. Testuinguru honetan dato 2020ko Sanferminak, bereziak dudarik gabe.

Lesakako Udalak herri sektore desberdinekin adostuz, herriko bestak bertan behera uztea erabaki zuen, Euskal Herriko bertze

- No vamos a permitir que se instalen campings en la zona urbana.

Este año no podremos recibir a los que como todos los años vienen a San Fermín por todos los rincones, apreciamos mucho su llegada. Pero, como se ha dicho, nos toca vivir las cosas de diferente manera este año y les pedimos que este año no vengan a Lesaka en San Fermín. El próximo año nos volveremos a ver”

A continuación, el Alcalde ha leído el escrito presentado por los bares de Lesaka:

“SANFERMINES 2020. APORTRACIÓN DE LOS BARES ANTE EN LA SITUACIÓN QUE VIVIMOS.

La crisis sanitaria que hemos vivido en los últimos meses, que vivimos, con motivo de la COVIS19 nos ha condicionado la vida, tanto personal como de nuestro sector. Hemos pasado semanas en casa, con nuestros bares cerrados, sin poder trabajar. Hemos visto los hospitales desbordados, cientos de muertos, miles de infectados. Ha sido la mayor crisis sanitaria de hace mucho tiempo, pasando en poco tiempo a la crisis social económica y política.

El pueblo ha tenido la capacidad de organizarse, poniendo en marcha medidas preventivas, cuidándose mutuamente. Actuando desde el primer día con responsabilidad, nosotros cerramos los bares, nos quedamos en casa.... como todos los demás ciudadanos.

Parece que progresivamente la situación va mejorando, estamos empezando a volver a la “normalidad”, poco a poco. En este contexto vienen los Sanfermines 2020, especiales sin duda.

El Ayuntamiento de Lesaka, de acuerdo con los diferentes sectores locales, decidió suspender las fiestas locales, como todas las de Euskal Herria.

besta guztiak bezala. Egun ez dago bestak normaltasunez egiteko baldintzarik, nondik gatozen ikusita, ezin ditugu urteroko Sanferminak antolatu.

Ostatuak irekiak ditugu orain, baina ez dira Sanferminik egonen, udalak herri sektore desberdinekin hartutako erabakia babesten dugu. Ez dugu arrisku gunerik sortu nahi, eta horretan guk ere badugu erantzukizunik, dagokigun neurrian. Horregatik, Lesakako Ostatuak konpromezu hau hartuko dugu, Sanferminak bertan behera uzteko herri erabakiari gure ekarpena izanen delarik:

UZTAILAREN 6TIK 11RA, GAUEKO 2:00ETAN TABERNAK ITXIKO DITUGU.

Benetako normaltasun batera itzultzean, arriskurik gabe, berriz disfrutatuko ditugu Sanferminak.

Lesakako ostatuak: Otsango Bahia, Itturbena, Antoiu, Arrano, Zialdo, Jubilatuk, Koxkila, Telebote, Haizea, Kasino, Etxeberria, Ekaitza, Zantzonea, Haizegu, Atxaspi, Hirubide, Lindurrenborde”.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1.) Sanfermineko bestari buruzko adierazpena onartzea.

2.) Bat egitea Lesakako ostatuak aurkeztu duten idatziarekin.

7. LGBT EGUNARI BURUZKO MOZIOA.

Iratxe Batiz eta Maittane Rodriguez andreek ondorengo mozioa irakurri dute:

“LGTBI HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA-Ekainak 28

50 urte igaro dira Stonewallen lesbiana, gay, transexual eta, batez ere trabestiak, poliziaren

Hoy en día no hay condiciones para que las fiestas se desarrolle con normalidad, viendo de dónde venimos, no podemos organizar los Sanfermines anuales.

Tenemos ahora los bares abiertos, pero no habrá Sanfermines, apoyamos la decisión del ayuntamiento adoptado con los diferentes sectores locales. No queremos crear espacios de riesgo, y en eso nosotros también tenemos responsabilidad, en la medida en que nos corresponde. Por ello, los bares de nos comprometemos a contribuir a la decisión popular de suspender los Sanfermines:

DEL 6 AL 11 DE JULIO, CERRAREMOS LOS BARES A LAS 2:00 DE LA NOCHE.

Al volver a una verdadera normalidad, sin riesgo, volveremos a disfrutar de los Sanfermines.

Los bares de Lesaka: Otsango Bahia, Itturbena, Antoiu, Arrano, Zialdo, Jubilatuk, Koxkila, Telebote, Haizea, Kasino, Etxeberria, Ekaitza, Zantzonea, Haizegu, Atxaspi, Hirubide, Lindurrenborde ”.

Por unanimidad, SE ACUERDA:

1.) Aprobar la declaración sobre las fiestas de San Fermín.

2.) Adherirse al escrito presentado por los bares de Lesaka.

7. MOCIÓN SOBRE EL DÍA DEL LGBT.

Dña Iratxe Batiz y dña Maittane Rodriguez leen el texto de la siguiente moción:

“DÍA INTERNACIONAL DEL ORGULLO LGTBI-28 de junio

Han pasado 50 años desde que las lesbianas, gays, transexuales y, sobre todo travestis,



LESAKAKO UDALA (NAVARROA) AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)

aldetik jasaten zitzuten jazarpena eta xantaiaren aurrean errebolatu zirenetik: data hori mugari bihurtu zen LGTBI pertsonen borrokan. 10 urte beranduago, 1979ko ekainaren 10ean, polizia batek Antonio Vicente Santa María (Francis) hil zuen Errreneriako diskoteka batean, trabesti izateagatik. Ekainaren 28 horretan LGTBI pertsonek eta kolektiboek Euskal Herriko kaleak hartu zitzuten estreinako aldiz, euren sexualitatea eta generoa modu askean bizitza aldarrikatzuz.

Stonewalleko gertakarien geroztik ekainaren 28an **LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna** ospatzen da: borroka disidente luzea eta egindako lorpenak ospatzeko eguna da, baita eskubideen eremuan aitzinera egiteko falta den guzta aldarrikatzeko eguna ere.

Covid-19aren pandemiaren ondorioz, une historiko aparta bizi dugu. Mundua hagitz astindua izan da, gure bizimoduak hankaz goiti jarri dira eta "normaltasun berri" batera itzultzeaz solastu da. Hala ere, LGTBI pertsonak bezala gure gizarte-ereduak ezartzen duen arauarekiko disidenteak direnentzat, itzulera horrek diskriminaziora eta bazterkeriara itzultzea ekar dezake. Diskurtso-esparruak, konfinamenduaren kudeaketak eta deseskaladak dagoeneko erakutsi dute zerbaite berrirako bide hori betiko ikusezintasunaz eta arretarik ezaz beteta egon daitekeela, hain zuzen ere diskriminazio gehien jasaten duten kolektiboei begira.

Konfinamenduak eragin negatibo espezifikoak ekarri ditu LGTBI pertsonentzat, eta argi dago ondorengo krisi sozioeconómikoak eragin horietan sakondu baino ez duela eginen. Pandemiaren aitzinetik zeuden errealityek puztu egin dira: LGTBI pertsona aunitzek indarkeria jasan dute haientzat seguruak ez diren etxeetan bizi

de Stonewall se rebelaron ante el acoso y el chantaje que sufrían por parte de la policía: esa fecha se convirtió en un hito en la lucha de las personas LGTBI. 10 años más tarde, el 10 de junio de 1979, Antonio Vicente Santa María (Francis) fue asesinado por un policía en una discoteca de Rentería por ser travesti. Ese 28 de junio personas y colectivos LGTBI tomaron por primera vez las calles de Euskal Herria, reivindicando la libertad en su sexualidad y género.

Desde los sucesos de Stonewall, el 28 de junio se celebra el **Día Internacional del Orgullo LGTBI**, una larga lucha disidente y de celebración de sus logros y de reivindicación de todo lo que resta por avanzar en el terreno de los derechos.

A raíz de la pandemia de Covid-19, vivimos un momento histórico excepcional. El mundo ha sido muy azotado, nuestros modos de vida se han puesto patas arriba y se ha hablado de volver a una "nueva normalidad". Sin embargo, para quienes, como las personas LGTBI, son disidentes a la norma que establece nuestro modelo social, este retorno puede suponer una vuelta a la discriminación y a la exclusión. El marco discursivo, la gestión del confinamiento y la desescalada ya han demostrado que este camino hacia algo nuevo puede estar lleno de invisibilidad y desatención perpetua, precisamente de cara a los colectivos más discriminados.

El confinamiento ha supuesto efectos negativos específicos para las personas LGTBI, y es evidente que la posterior crisis socioeconómica no hará sino profundizar en ellos. Se han exagerado las realidades que existían antes de la pandemia: numerosas personas LGTBI han sufrido violencia por tener que vivir en hogares inseguros para ellas;

behar izateagatik; bertze batzuek arazoak izan dituzte osasun-zerbitzu espezifikoetara edo, oro har, zerbitzu publikoetara ailegatzeko; jazarpen handiagoa jasan dute karriketan edo lanean, eta, oro har, beren osasuna okertu, eta estres psikologikoa eta emozionala areagotu egin da, gainerakoek baino neurri handiagoan. Bazterkeria, prekarietatea eta diskriminazioa direla eta, ondorio negatiboak biderkatu egiten dira, adina, klasea, arraza edo egoera administratiboa bezalako bertze ezaugarri batzuk kontuan hartzen ditugunean.

Erakundeetatik pertsona guztientzako eskubide guztiak bermatzeko erantzukizuna dugu, eta bereziki zaindu behar dugu LGTBI bezalako kolektibo zaurgarrienek eskubide horiek izan ditzaten. Covid-19aren garaian ere egin behar dugu: krisia ezin da aitzakia izan inor gibelean uzteko. Garaiz gaude "normaltasun berri" hori garai berri bat izan dadin, euskal jendarte errespetukoago, justuago, duinago eta askeago baterantz aitzinera egiteko aukera bat.

Horregatik, ekainaren 28 honetan aitortu nahi dugu LGTBI kolektibo eta pertsona ugariren borroka luze eta ordainezina Euskal Herrian: garai zail hauetan, pertsonen eta gure herriaren emantzipaziorako erreferente direla erakusten jarraitzen dute.

Era berean, Udal honek LGTBI pertsonen eskubideekin urteko egun guztietan duen konpromiso politikoa berretsi nahi dugu. Adierazpenetatik haratago, gure konpromisoa politika zehatzetan islatu behar da, bakoitzak bere giza baliabide, baliabide tekniko eta ekonomikoekin: mugimendu feministako eta LGTBI mugimenduko ordezkari eta adituekin adostu behar diren politikak.

otras han tenido problemas para acceder a servicios sanitarios específicos o, en general, públicos; han sufrido un mayor acoso en las carreras o en el trabajo y, en general, han empeorado su salud, aumentando el estrés psicológico y emocional en mayor medida que el resto. Por exclusión, precariedad y discriminación, las consecuencias negativas se multiplican cuando tenemos en cuenta otras características como la edad, la clase, la raza o la situación administrativa.

Desde las instituciones tenemos la responsabilidad de garantizar todos los derechos para todas las personas, y debemos velar especialmente para que los colectivos más vulnerables como LGTBI tengan esos derechos. Tenemos que hacerlo también en la época de Covid-19: la crisis no puede ser excusa para dejar a nadie atrás. Estamos a tiempo de que esa "nueva normalidad" sea un nuevo tiempo, una oportunidad para avanzar hacia una sociedad vasca más respetuosa, justa, digna y libre.

Por eso, este 28 de junio queremos reconocer la larga e impagable lucha de numerosos colectivos y personas LGTBI en Euskal Herria: en estos tiempos difíciles, siguen demostrando ser un referente para la emancipación de las personas y de nuestro pueblo.

Asimismo, queremos reiterar el compromiso político de este Ayuntamiento con los derechos de las personas LGTBI todos los días del año. Más allá de las declaraciones, nuestro compromiso debe plasmarse en políticas concretas, con sus propios recursos humanos, técnicos y económicos: políticas que deben ser consensuadas con representantes y expertos del movimiento feminista y del movimiento LGTBI.



LESAKAKO UDALA (NAVARROA) AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)

Horregatik, Udal honek konpromisoa
hartzen du honako hau egiteko:

1.) LGTBI pertsonen aurkako indarkeriaren aitzinean erakundeen koordinazio, arreta eta erantzun publikorako protokoloak diseinatzea eta abian jartza.

2.) Jazarpen eta eraso LGTBIfobikoei erantzuteko eta arreta emateko protokoloak bultzatzea hainbat eremutan: Hezkuntza, kultura, komunikazioa, enpresa.

3.) Haurrak eta nerabe transexualak babesteko neurriak ezartzea, bereziki trans errealityea barne hartzen duten hezkidetza-prozesuak, gizarte- eta hezkuntza-eragileekin.

4.) Ikuspegia feminista duten prestakuntza-prozesuak bultzatzea, langile publiko eta politikoentzat, bereziki, jendeari arreta emateko, eta gizarte- eta hezkuntza-esparrurako.

5.) Sentsibilizazio-kanpaina feministak egitea, Covid-19aren krisialdiaren testuinguru sozialera egokituta, epe labur, ertain eta luzean, sexu-genero dikotomiari, heteronormativitateari eta eremu desberdinietan LGTBI pertsonenganako indarkeriaren eta diskriminazioaren adierazpen eta forma anitzei buruzko kontzientzia kritikoa hartzea errazteko.

6.) Indarkeriaren biktima diren eta egoera hagitz ahulean dauden LGTBI pertsonentzako harrera-espazioak sortzea, arreta psiko-sozialeko, ekonomikoko, hezkuntzako eta bizitokietako zerbitzuak integratzuz, adingabeen, migratzaileen, transexualen berariazko beharrak jasoz.

7.) Zeharka, LGTBI kolektiboekin, kolektibo feministekin eta adituekin identifikatutako ekintza guztienei diseinu, jarraipen eta ebaluaziorako elkarritzketa lotesle eta

Por ello, este Ayuntamiento se compromete

a:

1.) *Diseñar y poner en marcha protocolos de coordinación, atención y respuesta pública ante la violencia contra las personas LGTBI.*

2.) *Impulsar protocolos de atención y respuesta ante acosos y agresiones LGTBIfóbicas en los ámbitos educativo, cultural, comunicativo, empresarial.*

3.) *Establecer medidas de protección a la infancia y a la adolescencia transexuales, especialmente los procesos coeducativos que incorporen la realidad trans, con agentes sociales y educativos.*

4.) *Impulsar procesos de formación con enfoque feminista para el personal público y político, en particular, para la atención al público y para el ámbito socioeducativo.*

5.) *Realizar campañas feministas de sensibilización, adaptadas al contexto social de la crisis de Covid-19, a corto, medio y largo plazo, para facilitar la toma de conciencia crítica sobre la dicotomía sexo-género, la heteronormatividad y las múltiples manifestaciones y formas de violencia y discriminación hacia las personas LGTBI en los diferentes ámbitos.*

6.) *Crear espacios de acogida para personas LGTBI víctimas de violencia en situación de vulnerabilidad, integrando los servicios de atención psicosocial, económica, educativa y de alojamiento, recogiendo las necesidades específicas de menores, migrantes, transexuales.*

7.) *Habilitar espacios de diálogo vinculante y permanente para el diseño, seguimiento y evaluación de todas las acciones identificadas con colectivos LGTBI, colectivos feministas y personas*

iraunkorreko espazioak gaitzea.

Lesakarrei dei egiten diegu LGTBI mugimenduak eta mugimendu feministak gure herrian deitutako ekintzetan parte har dezaten

Denontzako askea eta bidezkoa den Euskal Herri baten alde!"

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1.) Aipatutako mozioa onartzea.

expertas.

Hacemos un llamamiento a la ciudadanía lesakarra para que participe en las acciones convocadas por el movimiento LGTBI y el movimiento feminista en nuestro pueblo

¡Por una Euskal Herria libre y justa para todos! "

Por unanimidad, SE ACUERDA:

1.) Aprobar la citada moción.

8. SERAFINA MACICIOR ITURBIDEK ESKATUTAKO APROBETXAMENDUA.

2020ko maiatzaren 25ean (1528. sarrera Udaleko Erregistro Orokorean) aurkezturiko eskaera aztertuta, Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1.) Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitaztea Serafina Macicior Iturbide andreak eginiko eskaera, honako aprobetxamendu hau egiteko: haritz eta akazien entresaka, Aguerregui paraje. Moztu behar den azalera 46.909,00 m² -koa da. Katastroko 6. poligonoko 30. partzelako F azpibartzelen zati bati dagokio (Aprobetxamenduaren referentzia Oihapart/2020/8).

2.) Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

Halaber, ezarritako fidantza jarri beharko du, eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaio. Lanetarako kamioiak edo bertzelako makinaria astuna erabiliko ez duten partikularrek ez dute fidantza hau jarri beharko, beti ere hau horrela

8. APROVECHAMIENTO FORESTAL SOLICITADO POR SERAFINA MACICIOR ITURBIDE.

Examinada la instancia presentada con fecha 25 de mayo de 2020 (entrada nº 1528 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:

1.) Tramitar ante el Servicio de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra la solicitud formulada por Dña. Serafina Macicior Iturbide para realizar una entresaca de robles y acacias en el paraje de Aguerregui. La superficie de corte es de 46.909,00 m². Corresponde a una parte de la subparcela F de la parcela 30 del polígono 6 del catastro, (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2020/8).

2.) Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberá comunicarlo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el estado de los caminos utilizados.

Para ello tendrá que constituir la fianza establecida, cuyo importe les será indicado. Los particulares que no vayan a utilizar camiones o maquinaria pesada para los trabajos a realizar, no tendrán que depositar esta fianza, siempre que



LESAKAKO UDALA (NAVARROA) AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)

izanen dela eta sor ditzaketen kalteez kargu eginen direla idatziz ziurtatzen badute. Hau ez betetzea arau-haustea kontsideratua izanen da eta ondorengo isuna jarriko zaio: eskatutako metro kubiko bakoitzeko 3 €, eta gutxieneko isuna 300 €-koa izanen da, gainera sortu ditzakeen kalteez kargu eginen delarik baimen eskatzailea.

3.) Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio haren konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duen jabearren kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

4.) Pista berriak irekitzeko Udaleko berariazko baimena behar du.

5.) Eskatzaileari jakinaraztea, finka komunalera ageri dela udal catastroan, eta, ondorioz, erabaki honek ez duela deus adierazten lurremuaren jabetzari buruz.

9.) ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Zinegotzi guziei pasatu zaie, posta elektronikoz, azken osoko bilkuratik gaur arte Alkatetzak emaniko ebazpenen zerrenda (199/2020 ebazpenetik 254/2020 ebazpena arte). Ez dutenei, aipatu zerrenda horren paperean inprimaturiko kopia bana utzi zaie, bakoitzari dagokion erretiluan.

Ondoren, eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 91.4 artikuluak xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdeku du ea talde politikoren batek premiazko arrazoiak direla-eta Udalbatzak eztabaideatzea nahi

manifiesten por escrito que esto será así y que se harán cargo de los daños que pudieran producirse. No cumplir con esto se considerará infracción de la norma, y se aplicará la siguiente multa: 3 € por cada metro cúbico solicitado, siendo el mínimo de la multa 300 €, y haciéndose cargo del resto de los daños que pudiera ocasionar.

3.) Los caminos no podrán dejarse en malas condiciones. Si esto sucediera, se le dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo del propietario del aprovechamiento.

En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.

4.) La apertura de nuevas pistas requiere de autorización expresa del Ayuntamiento.

5.) Comunicarle que la finca figura como comunal en el catastro municipal, por lo que este acuerdo no supone pronunciamiento alguno sobre la propiedad de la misma.

9.) CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA.

Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía desde la última sesión hasta el día 25 de junio (desde la nº 199/2020 hasta la nº 254/2020). A los que no lo tienen, se les deja una copia impresa en papel de la citada lista, en su respectiva bandeja.

Seguidamente y conforme a lo establecido por el artículo 91.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia,

duen aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihoa
gai-zerrendan ez zegoena eta “eskari-galderak”
puntuaren sartzerik ez duena.

Ez da inolako gairik planteatu.

algún asunto no comprendido en el orden del día que acompaña a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.

No se plantea cuestión alguna.

**10.) OSOKO BILKURAREN
KONTROL-JARDUERA.ESKARI
ETA GALDERAK.**

Ez dira izan.

**10.) ACTIVIDAD DE CONTROL DEL
PLENO.RUEGOS Y PREGUNTAS.**

No se formulan.

Aipaturiko eguneko ilunabarreko zazpiak
eta hamabost minutuak direla, eta eztabaidatzeko
gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat
eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten
dut.

Siendo las diecinueve horas y quince minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretaria, certifico.

